

Orkli Group mundu-mailako enpresa bat da, lehiakorra nazioartean, eta soluzio berritzaileak diseinatzen, ekoizten eta merkaturatzen ditu, Erosotasunaren eta Etxearen sektoreko bezeroen segurtasun-, araudi- eta kontrol-beharrak asebetetzeko.

Orkli Group-ek badaki nolako garrantzia duten enpresa-jarduerak, kalitateak, berrikuntzak, segurtasunak, enpresako kideen osasunak eta ongizateak, ingurumena zaintzeak, energia modu efizientean kudeatzeak, erantzukizun sozialak eta garapen jasangarriak. Beraz, eremu horiek guztiak biltzen ditu bere kudeaketa-sisteman.

Epe estrategikoko erronkak, xedeak, adierazleak eta proiektuak zehazteko unean, misioa, aurreikuspena eta balioak ere zehazten ditu Orkli Group-ek hausnarketa estrategikoa egitean.

Aurrez aipatutako puntuak aintzat hartuta zehazten du Orkli Group-ek bere politika, eta konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Enpresaren funtzionamendu ona eta garapen jasangarria bermatzeko elementu estrategikoak nola kudeatuko diren zehaztea: enpresa-jarduera, kalitatea, berrikuntza, segurtasuna, enpresako kideen osasuna eta ongizatea (lanean nahiz lanetik kanpo), ingurumena, energia eta erantzukizun soziala.
- Legez eta arauz aplikatu daitezkeen baldintzak betetzea, baita erakundeak aintzat hartutako beste eskakizun batzuk ere; besteak beste, arau, estandar eta eredu hauek ezarritako betekizunak: ISO 9001, ISO 14001, ISO 45001, ISO 50001 eta antolakuntza osasuntsua, bestak beste.
- Komunikazio-kanalak mantentzea, eta interes-taldeen beharrak, itxaropenak eta sentsibilitateak ulertzea.
- Bezeroen asebetetze-maila handitzea.
- Arriskuak murriztea eta ezabatzea eta lan-baldintza seguruak eta osasungarriak ematea, enpresako kideen lesioak eta osasun-kalteak prebenitzeko.
- Orkli Group osatzen duten pertsonen segurtasuna, osasuna eta ongizatea babestea eta sustatzea lanean eta laneztik kanpo, pertsonen eta haien ordezkarien eta interes-taldeen kontsulta- eta partaidetza-konpromisoari eutsiz. Bizimodu osasungarria sustatzea, ingurunearen iraunkortasuna bermatuz eta komunitatean modu positiboan parte hartuz.
- Ingurumena zaintzea eta kutsadura prebenitzea, ingurumenaren gaineko kalteak gutxitzeko. Energiari dagokionez, produktu eta zerbitzu efizienteen erosketak sustatzea, eta produktuen diseinu, ekoizpen eta prozesu eraginkorren garapena bultzatzea.
- Helburuak lortzeko beharrezkoak diren informazioa eta baliabideak eskuragarri daudela bermatzea.
- Trebakuntza- eta sentsibilizazio-programak garatzea, eta Orkli-ko kideen parte-hartzea erraztuko duen lan-ingurune bat sortzea, erronkak eta helburuak lortzeko, kudeaketa-sisteman erabakiak hartzeko eta jardunbide-kodea betetzeko.
- Kudeaketa-sistema eta sistema hori osatzen duten prozesuak etengabe hobetzeko ahaleginak orientatzea, helburu hori lortzeko hobetu beharreko gai guztiak aintzat hartuta.